

EBALUAZIO-ERRUBRIKA

PROIEKTUAK.EUS – ZELULA GO!

Ekoitzi eta probatu

IRIZPIDEA (TALDE-LANETAN)	4-BIKAINA	3-AURRERATUA	2-EGOKIA	1-HASIERAKOA
NZ 1.2 · Jokoa osatzea eta egiaztatzea (A atala)	Zortzi puntuak egin dituzte, eta «Oharrak» zutabean idatzi dute zer falta zen eta nola konpondu duten.	Zortzi puntuak egin dituzte eta egiaztapen-orria beteta dago.	Puntu batzuk falta dira, edo egiaztapen-orria erdi beteta dago.	Jokoa ez dago osatuta, edo ez dute orria bete.
NZ 4.2 · Partidako datuak jasotzea (B atala)	Hiru partidatako datu guztiak jasota daude, arazoen deskribapena barne.	Hiru partidatako datuak jasota daude taulan.	Partidatako datuak ez daude jasota, edo zutaberen bat hutsik dago.	Ez dituzte partidatako datuak jaso.
MAT 2.1 · Maiztasuna eta probabilitatea alderatzea (B atala)	Maiztasun erlatiboak kalkulatu dituzte, probabilitate teorikoarekin alderatu dituzte eta aldea azaldu dute.	Maiztasun erlatiboa eta probabilitate teorikoa idatzi dituzte, eta bat datozen ala ez adierazi dute.	Karta-motak eta kopuruak idatzi dituzte, baina ez dute alderaketarik egin.	Karten taula hutsik dago.
NZ 1.4 · Jokoaren azterketa kritikoa (C1 eta C2)	Arazo nagusia identifikatu dute, eta bi joko-taulen arteko desoreka datuekin azaldu dute.	Bi galderei erantzun diete, arrazoituta.	Galdera bati bakarrik erantzun diote, edo erantzunak arrazoitu gabe daude.	Ez dituzte galderak erantzun.
MAT 3.2 · Aldaketak proposatzea datuekin (C3)	Aldaketa bakoitza jasotako datu zehatzekin justifikatuta dago.	Aldaketak proposatu dituzte eta datuekin justifikatu dituzte.	Aldaketak proposatu dituzte, baina justifikaziorik gabe edo iritzi hutsez.	Ez dute aldaketarik proposatu.

IRIZPIDEA (BANAKAKO LANETAN)	4-BIKAINA	3-AURRERATUA	2-EGOKIA	1-HASIERAKOA
NZ 2.3 · Rola betetzea eta elkarlana	Bere rola bete du eta taldekideei lagundu die haiena betetzen.	Bere rola bete du: dagokion datua jaso eta taldeari eman dio.	Rola partzialki bete du, edo gogorarazi behar izan zaio.	Ez du bere rola bete.
MAT 9.1 · Zailtasunen aurreko jarrera (probaketa eta C atala)	Jokoak huts egin duenean, akatsa hobetzeko aukera gisa hartu du: zer gertatu den izendatu du eta zer aldatu proposatu du.	Ez da etsi; arazoa non dagoen bilatzen jarraitu du.	Aurrera jarraitu du, baina kexatuz edo adorerik gabe.	Etsi egin du eta jokoa probatzeari utzi dio.

Ebaluazio-irizpideak (Natura zientziak eta Matematika, DBH 1-2)

Errubrikako kode bakoitza euskal curriculumeko irizpide bati dagokio:

NZ 1.2	Prozesu naturalak azaltzea, ereduen eta diagramen bidez irudikatuz, eta, beharrezkoa denean, ingeniaritzako diseinuaren urratsak erabiliz (arazoa identifikatzea, miatzea, diseinatzea, sortzea, ebaluatzea eta hobetzea), tresna analogikoen eta digitalen bidez.
NZ 1.4	Fenomeno naturalei buruzko problema baten soluzioa kritikoki aztertzea, beharrezkoa denean birformulatuz.
NZ 2.3	Eraikuntzako eta hezkidetzako elkarrekintzak ezartzea, jarduera zientifikoetan kolaborazio-lanaren berezko estrategiak erabiliz, aniztasuna errespetatuz eta inklusioa bultzatuz.
NZ 4.2	Fenomeno zientifikoei buruzko esperimentuak egitea eta datu kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak hartzea, baliabide, tresna analogiko eta digital edo teknika egokiak zuzen eta gero eta autonomia handiagoz erabiliz.
MAT 2.1	Problema baten soluzioen zuzentasun matematikoa egiaztatzea, ebazteko beste estrategia posible batzuk analizatuz.
MAT 3.2	Emandako problema baten aldaerak planteatzea, problemaren daturen bat edo baldintzaren bat aldatuz.
MAT 9.1	Matematikarekiko norberaren emozioak identifikatzea, erroreak hobetzeko aukera gisa onartuz eta erronka berrien aurrean itxaropen positiboak sortuz.